

AURKEZPENA

Gaur egun gizakiak naturari eragindako kalte guztia ikusita, behar-beharrezkoa dugu hau zaindu eta babestea. Bistakoa da planetari gero eta min gehiago egiten diogula, telebistan egunero ikusten baiditugu guk geuk eragindako hondamendiak. Gure eguneroko bizitzan denok aldaketa txikiak egingo bagenu, aldaketa izugarriak lortuko genituzke, eta hau da gure nahia; planetari gaitz gutxiago egitea, bat bakarra baitugu.

Gure proiektua, interneten topatu genuen ikerketa batetik sortu zen. Honen arabera, egunero kontsumitzen dugun energia kontutan edukita, pertsonako 2,5 petrolio erabiltzen ditugu Espainian. Gainera, kontutan eduki behar dira Euskal Herriko tenperatura baxuak, hau dela eta, berogailua sarriagoa jartzen dugu, energia gehiago kontsumitzea dakarrena. Ez gara jabetzen konturatu gabe erabiltzen dugun energia guztiaz, eta hau da arazo larriena, jendearen jakituria urriaz.

Xabier, Alex, Ainhoa, Haritz eta Naiara gara, eta gure proiektu *eco-friendly*-arekin gatoz; Urretxu-Zumarraga Ikastolan bigarren batxilergoa egiten ari gara Startinnovako proiektuan parte hartzea erabaki dugu. Gure enpresak Estif du izena eta gure helburua energia lortzeko zentral nuklearrek duten arriskua murriztea da, baita beharrezkoa den petroleoa gutxitzea ere, gure gimnasioa, gimnasio *eko* bat bihurtuz. Honetarako, izenona eta arrakasta lortzea nahitaezkoa da.

Sortutako zerbitzu hau aurrera aterako balitz, planetari mesede handia egingo genioke inolako esfortzurik gabe, izan ere, gimnasioko makinek sortutako energia berrerabiltzean datza gure proiektuak, naturari min gutxiago egiteko asmotan.